Mugarrien garraioan

Rafa Egiguren

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1985 Rafa Egiguren
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1985eko abendua
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Zuritu egin digute izakera,
mugak bizar-aitzurrez bereizi.
Kartoindu egin digute lurra,
itsasoa paper urdinez estali.

Alanbradatan bilbatu gaituzte
lerro paraleloz eta meridianoz.
Zehatz-mehatz finkatu digute,
txandapasean dagokigun gradua.

Susmoak eman balio ere
erabateko bolearen berri
pilotari itsu batek
alferrikan du,
nahiz kokatu
harri biziaren sareetan txintxilik.

Zerion tanto gorriaz
egin izan balu behingoz beste,
ez zukeen pillotaren bihotza
txaparen kontra klak hautsiko.

Sakatu egiten dira asmoak aise,
nahiz txibaren zurrunbilo itotan
neketan ematen alkantzu
intentzio txarreko dejada zailei.

Izan ere inork ba al daki
kantxako zein zentimetro kubikotan
jokatu behar zaion imintzio bati
aukerarik gabeko desafio zimurra.

Garaituko ez balu
bekiola behintzat,
dutxaren atseden etsia
zilegi.

Inork baino hobeto bazekien ere
nongo taktika-plani
zuritu behar zizkion barandauak,
ihes aldiaren izkina batean
itsutu zuten paretaren kontra.

Kilkerrak eta ipurtargiak
gustatzen zitzaizkion
bere kuartoko tetxuan eta
Vietnamgo mapa zabaltzen zuen
gertuagotik jarraitzeko Vietcong.

Nahiz argazki aereo hartan
tamaritzen arrasto gutxi,
garai hartako enziklopediak
hiruzpalau koloretako ekuazioak
erakusten zizkion bakarrik.

Bere buruaz
beste
(paperezko
lili bat)
egin du
kaxka
motzeko
poxpolu
bontzoak.

«Ez zara mundu honetarako»
esan zaio;
txiripaz,
halako batean,
mundu arrotz honetara
erori den inuxenteari.

«Hurrengoaren bidea urratuz
eskura dezakegu
dagokizun zorion apurra»
esan zaio;
txiripaz,
halako batean,
mundu arrotz honetara
erori den inuxenteari.

Bizitza luzeagoa,
agian areagoa
behar omen duelako;
aurrerabidearen zaldi biok,
ahalik eta azkarren

eta
ahalik eta urrutien,
bizitzaren atzetik
alde egiteko baizik
ez dutelako akaso balio...

«Lana eta burruka:
horra defentsarako
emango zaizkizun
erraminta bakarrak»
esan zaio;
txiripaz,
halako batean,
mundu eder honetara
erori den inuxente gaisoari

Ai ene!
iratxo bat
irentsi dut
txokolatezko
glup!
onddo
baten
barruan.

Etzazula porzentaia minimo batez, bederen,
etorkizun inplizitoetan hil zaitzaten utz.
Tabernaz-taberna,
hankapuntetan ibiliko bagara ere,
ez dezatela biltzarretan zure begi urdinek
mozorroaren azpiko negar saminik isuri.

Dagoeneko kasikan ez ditut
zure aparatu digestiboaren
azken taupadak konprenitzen

baina, parentesi artean esango banizu,
ekarri dituzten bokadilloak ez direla
azken finean baino guretzat...

Belardietan ez da
zure aldeko papera besterik ageri;
«delinkuentzia internazionalaren anaiak oro
lurrazpiko aparkalekuetan errekeritzen zaitu».

Txangurru bati bezala,
zuri ere,
azken funtsetaraino
urrupatuko dizkizute
adimenaren tarte
goxuenak.

Oroimena:
Aintzina gogoRAtzeko periskopioa.

Etorkizuna:
Oroimen ezineko aintzina.

Ikusmena:
Azal oro begiRAtzeko zooma.

Begiak:
Irudiak iRAkurtzeko ispiluak.

Irudimena:
KanpoRAko itxurak zuritzeko labana.

Asmanena:
Etorkizuna eguneRAtzeko sena.

Azare itsuaren eginahalak
denboraren poderioz
izar berriak pizten ditu.

Etorkizunaren asmoak
eta
asmakizun dirautenak
batera datozenean
gizonak ezagutu egiten du.

Ezer ikaskizun dirauen artio
jakin eta ez dakienaren arteko oreka
beti izango da neurri berekoa.

Gure oroimen ahulak
ahalegin ikaragarriak
egin behar ditu
nahiz hemen bertako etorkizunari
imintzio zorri bat
harrapatuko badio.

Hala ere, nahiz Wolframioa
orobat Penizilina
edo Loteria asmatzeko
beste biderik ez dago.

Gaurregungo etorkizuna kontatzeko
hatzamarrak nahikoak dira.

Bere bizimodua zinez
joriago desio duenak,
ez dezala politika
geroaren baitan hesi.

Atarramenduaren abantzuak
errekeritzen duen oldarra
erramintan prest daukanak,
ez dezala reboluzioa
politikaren baitan utzi.

Altxorraren alderdiren bat
Orain bertan zor zaio.

Mina gustatzen zaio gure.dragoiari piperra.

Egunen batean hil beharragatik
ez dut ero baten moduan ibiltzeko
aski arrazoirik aurkitu.

Ez nuke inolaz ere
gauza haundirik gabe
bizitzeko beldurrik nahi.

Neure borondatez uzteko prest
nagoen kutizi orotan
nazkatu arte
jarrai bezate
orain arte bezala alferrik agintzen.

Norbaitek galdu beharragatik
ez dut nik irabazi beharrik.

Orain ezikan, besteetan ere
ez dinat bizkarrik emango, Maddi,
baina bihar arte, bederen, ez itzan
suzko igitai zorrotzok itzali.

Irri maltzurrez txikitu diten
mila pusketan mailu baldar hau
ta Thor traste honek, azken aldean,
fandangoan aritzeko gogo gutxi.

Zitroin garratzez eskribituta
bidaltzen dizkinat seinale goriok,
hitzaren sotoan miatu nahi badun
txaparen gainetik pasa itzan.

San Juan bezperan Venezian dinagu
San Markosen plazan enkontrubide bat,
inguratzen bahaiz, ez itzan ahaztu
denbora bateko karramarru zaharrak.

Amuarrainak Anjerusari
korapilo bat egin dio
tanpaxaren mutturrean,

Ugemarraren erdia
menturaz,
legatza balitz,
honez gero katuak
jan zion mingaina.

Muxu batez seinalatua zeukak
amaraun planetarioaren ezker aldera
helburu gisa txoko txiki bat;

bere begien atzeko pentsutan zetorrek
beste zerbaiten izenean bahiturik.

Bihotzaren azpi-doblean zekarrek
irtenbide ezin baten erretrato robota;

kutxa beltz batean gordeta zeramak
amore eman beharraren kasketaldia.

Hala ere, irrifarrez zebilek ozar
begi urdineko Zepelin baldar hori...

Izan ere,
gaur egunean hegazkinak dituk
munduko animaliarik ikaragarrienak.

Hezur eta haragizko izeberg
lur hartzerakoan lur jota,
sugarren artean itotzen akabo
Joe.

Galtzerdiaren azpiko
errekamaran betoz prest
algebra bizkor baten aldeko
kamikaze birjaioberriak
Baxter,
ojala berriz!

Beldurrari ikasi genizkion
paradigma baldarrak,
hainbat maskuridantzariren
gomazko durundak,
triku-trikuan goizero
hankutsik zetozen komando japonesak

etsi-etsian hire zai
aireportuaren erdian kiskaltzen.

Trumilka izar txirbil,
trumoiak askatzen dituzun
burni puska.

Harridurak grapatzeko
ikusmira ozena.

Ilunpetako metala
eta
laberinto fatala.

Ganbaz kargatuta
isilik zauden
txipiroi astuna.

Oihartzunak zulatzen
ozar diharduzun
tximista zitala.

Etorkizun oro
eragozten duzun
erraminta mortala.

Bi tirotako ninietan barrena
eguneroko argia hariztatzeko
zoom zorrotza darabil
irudiak harrapatzeko zepoak.

Zilarrezkoak:
    mamirik gabeko mamua,
    irudiaren oihartzuna
    eta azkeneko finean
    ispiluaren erantzuna.

Hamaika mila pusketan txikituta
ispiluan datza aintzina
ta ausardiaz harrotuta
betaurreko beltzak dakarzki
hurrengo mozorro ikaragarriak.

Aurpegi bakarreko kristalak.
Eguneroko kamino bustietan
zilar zikineko pagoak, ispiluak.
Ispiluetatik egiten du
baita ere
irudiaren oihartzunak
eta
egoitzetako aire egonduak
ihes.
Begiaren mugarri bigun,
urez betetako harriak;
bi aldetarako ispiluak hala ere,
kristalak.

lzarrak;
iñularretako kasualidade zaharrak.

Zure aurpegiaren aurrean
mozorroaren ateak ireki
eta neure burua
defentsarik gabe uzten
ausartzen naizen
okasio gutxietan,

zure tuntun aurpegi bera
jartzen dut
eta txilborraren atzean
sentitzen duzun
deskantsu horretan bertan
abandonatzen naiz.

Salto baten kiribilean
heldu zion zapatariak
airean bizkor zebilen
harri kozkor biziari.

Ondu bezain laster
piztiaren larru finez
pedazatu zizkion
laburuaren arrasto zaharrak.

Samur zigortu asmoz
txokora ekarri zuen
bumerang borobil giharra,

abiaduraren poderioz
bueltatu ezinik dabil
aitzaki zirkularretan txintxilik.

Muskerraren antzo zelatan
Gordetzen nauen barrutian
Kanpoko urarenak dira
Patxadan orekan lo dauden
Zaldiarrainen parabisuan
Ispilatzen diren zantzuak

Zoko guztietan nagusi,
inguruaren jabe da pilotaria,
bertsolaria, berriz,
bere buruaren menpeko.

Buruz ari da bertsolaria,
pilotaria, aldiz,
eskuz.

Kanpotar Arazoetarako
pilotaria da mandatari,
Barne Kontuetan, berriz,
bertsolaria alkate.

Argia behar du pilotariak,
bertsolariak, aldiz,
ilunpetan ibili beharra dauka.

Bertsolaria:
Barne-muinetako pilotaria.

Pilotaria:
Harrobietako bertsolaria.

Erakusten ez didazunaren
mapa papiroflexikoa
asmatzea badago,
ta zure bihotzaren azpiko
karkabetan nabil,
trolebusaren bigarren pisuko
azken aulkian galduta.

Hurrengo orrialderako bidetxiorretatik,
belarrezko petatxu zabalez
konposatutako edredoietan barrena,
zeu zara betiko gidari,
ta neu, berriz,
neure buruko fronte sakabanatuen mandatari,
erabakirik gabeko korapilotan antzu.

Gure kaleidoskopio gandutuaren zorabioan
ausartzen naizenetan,
konprenitzen ez ditudan keinuak
egiten dizkidazu,
ta harrapatzen nauzun

tabernatan oro
kupidarik gabe lapurtzen,
baxoerdian geratzen zaidan kondar bakarra.

Anaiari galtzerdiak janztea
egokitu zaigun bakoitzean
bigarren gerra mundiala
berpiztu behar izan badugu,

ez da harritzekoa,

aurrean suertatzen zaion
edozein zapata pareri
lokarria askatzeko grina
eraman ezina badu.

Gure arteko diferentziak badira
aurrerabidearen giltzarri,
errepikaren aldi bakoitzean
bere lekua kentzen zaio
atzetik datorren beste zerbaiti.

Orekan behar dute neurriak,
egunkari oro da maizegi,
etorkizun jori bat sartuko bada
gaurko gudariak behar du
denbora hustutzen ondo ikasi.

Dagoeneko helburuak hemen daude,
gerokoak ez dira gehiago,
aukerabideak jarraitu behar badu
amets ezin guztiak zehazten
bertan ahalegindu beharra dago.

Tranpateko bakoitzean
eror ez dakizun etxea
urruti omen zaude
berandutuko ote zaizun zai.

Bart arratserako zurubitik barne
atzera daramaten ametsetan ere
ba omen zabiltza.

Ta hala ere,

bertan harrapatu zaitut
aspaldiko partez ihesi
irrati baten tripa zaharra
zirudienean ilunean hiriak.

Katu baten begiak;
hilargia zaintzeko
sarrail zulo zoliak.

Katu baten begiak;
teilatuetan dabiltzan
ikur fosforagarriak.

Katu baten begiak;
ilunpe sakonetan
izar-elurrez josiak.

Katu baten begiak;
kolore askotako
labanaren zauriak.

Katu baten begiak;
ametsaren erdian
arrainez bete-beteak.

Hilargiaren hazkazal zorrotzak
larrutzen duenean arratsa
eta izar lakarrek harramazkatzen
mendiko abar iharrak,

desegin egiten dira ilunpetan etxeak,
diharduenean hotzak hiltzen
sukaldeko leihoaren argi erreak.

Lurraren azpiko oihartzun gorrak
galduta dabiltzan tren baldarrak
urrupatzen ohi omen,
eta errainuen artean hor nonbait:

txatartegi bat gainezka,
sateliteak zilipurdika,
eta irratia,
diztiraz irakiten.